

Arrasate

P R E S S U

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2004ko azaroaren 26a / 696. zenbakia

UDALATX ZULATZEN

MENDI BARRUTIK HARRIA ATERATZEA AZTERTZEN DABILTZA



ORAIN ETA HEMEN: ALDAKETAK, EGITAMU OROKORREAN/6 • **KIROLA:** ESKUBALOIKO LIDERRA ITURRIPEN/9

ARGAZKIA: JON BEREZIBAR

OSASUN GIDA/20

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 26**
Irizar, Erguin 11 943 79 12 39
- ZAPATUA, 27**
Amezua, Santa Marina 32 943 79 09 74
- DOMEKA, 28**
Español, Araba etorb. 14 943 79 18 65
- ASTELEHENA, 29**
Ruiz, Maala 31 943 79 14 09
- MARTITZENA, 30**
Zabala, Zarugalde 42 943 77 16 30
- EGUAZTENA, 1**
Azkoaga, Ferrerías 1 943 79 15 15
- EGUENA, 2**
Azkoaga, Iturriotz 17 943 79 79 99
- EGUBAKOITZA, 3**
Corcuera, M. Aranbarri 1 943 79 22 26

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea 943 03 53 00
Igualetoia 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak 943 79 39 00
Emakumeak 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea 943 79 90 11
- LARRIALDIAK**
SOS Deiak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelohenetik egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan... egun osoa
- Arrasate**
Astelohenetik egubakoitzera 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko: medikuntza orok, eta pediatria 943 03 52 50
 - Espezialitateak 943 03 53 11
 - Ikuskatzailea 943 03 52 52
 - Kanpoko kontsultak 943 03 53 11

- ANBULANTZIARI**
Gipuzkoako Anbulantziak 943 45 87 44

- ERTZAINZTA**
Arrasate 943 79 71 99

- SUHILTZAILIAK**
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088

- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
943 79 78 44

- GARRAIOAK**
Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza 943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monterron 943 77 01 05

MEZAK

- | | |
|--|--|
| San Juan parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna) | San Andres eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna) |
| Domeka
09:00 (elebiduna)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (elebiduna) | Domeka
10:00 (gaztelaniaz)
11:00 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz) |
| San Frantzisko eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna) | Santa Marinako eliza
Zapatua
19:00 (gaztelaniaz) |
| Domeka
09:00 (euskaraz)
10:00 (elebiduna)
12:30 meza nagusia (elebiduna)
19:00 (elebiduna) | Domeka
11:00 (gaztelaniaz) |
| Uribarri parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna) | San Isidro eliza
Zapatua
20:00 (euskaraz) |
| Domeka
11:30 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz) | Santa Teresa eliza
Domeka
12:30 (elebiduna) |

OHARRAK

MUGARRIZ MUGARRI
Etzi, domeka, *Mugarriz-mugarri Arrasate* ezagutzen ekimena egingo dute, AEDk, Leintz Eskola Kirolak eta Besaidek antolatuta. 09:00etarako egin dute hitzordua Arbola-petan, eta Udalako inguruak bisitatuko dituzte. Horien artean, hango elurzulo eta karobiak. Ibilaldia arina da. Bazkalor-durako bueltan egongo dira.

GAZTE TXOKOEN URTEMUGA
Bihar, zapatua, gazte txokoen hamargarren urtemuga ospatuko dute. Eguerdian bazkaria egingo dute AEDko txokoa. Arratsaldean, Uarkapen, 12 eta 17 urte artekoendako jolasak egongo dira. Eta gauean kontzertua egingo dute gaztetxean. SKT Sekuentzia, Lau eta Kerobia taldeek esku hartuko dute.

JOSTAILU TRUKE MERKATUA
Gaur, egubakoitza, izango da jostailu truke merkatu-rako jostailuak emateko azken eguna. Seber Altuben egongo dira, 18:00etatik 19:30era artean.

HARREMANEN ERAKUSKETA
Datorren egubakoitzean, hilaren 3an, Harreman taldeak hainbat margolariren erakusketa jarriko du Monterronen.

AEDrenAGENDA

'LOTSIAZUNA' LIBURUAREN AURKEZPENA, EGUAZTENEAN
Eguaztenean, Jokin Zaitegi Sariketaren *Lotsiazuna* liburua aurkeztuko du Oskar Aranek. Monterronen izango da, 19:00etan.

URBANOENORDUTEGIA

- Gorostizatik Eroskira (2 Linea)**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara (2 Linea)**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.
- Gorostizatik Eroskira (1 Linea)**
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, San Frantzisko, J.L. Iñarra, Makatzena, Obenerreka, Cristo Obrero, Galizia, Joan Bengoa eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara (1 Linea)**
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN

A eredu desagertu zen 14 urte arteko irakaskuntzan

Orain dela 10 urte, Arrasateko eskoletako matrikulazioei zego-kienez, A eredu desagertu egin zen 14 bitarteko irakaskuntzan. Irakaskuntza ertaineko ikasketei zego-kienez, berriz, 2.029 ikasleetatik %53 A eredu matrikulatu ziren, eta %47 D eredu.




BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru



— Egundoko gorra ein jakon kontzertuan.

JON IRAEGI

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Emakume abeslariak Danbaka saioan

Asteburu honetako Danbaka saioan, emakumeen ahotsak izango dira protagonista 107.7an. Elgetako Izas bakarleriak (argazkian) doinu lasaiak eskainiko dizkigu bere gitarraren laguntzarekin zapatuan, 16.00etan. Domekan, berriz, Arrasateko Inesen ahots indartsuak hartuko du lekukoa. Horrela bada, Isarevolution taldeak, Elgetako Espaloia Antzokian egin zuen moduan, gorputza astintzeko bidea emango digu. Domekan, 16.00etan.

Zelaia enpresaburua 107.7ko autobusean

Juan Zelaia Oñatiko enpresaburu ezaguna izan dugu besteak beste, aste honetako *Igo Autobusera!* saioan. Lagunarteko solasaldia izan genuen berarekin, etxeko sekretutxoak ere kontatu zizkigun eta guztiak berreskuratuko ditugu asteburuko gainbegiratuan. Horretaz gain, Xabi Payá bertsolaria eta itzultzaile getxotarrarekin izandako elkarrizketa ere entzun ahal izango duzue. Zapatuan eta domekan, 10.00etan.

HAUGIROA!

MINIMOA Zapatua, 13	5 °C
MAXIMOA Domeka, 14	12 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	100 L
	Max. Min. Euria
Eguaztena, 10	11 °C 7 °C 55,8 l/m²
Eguena, 11	9 °C 8 °C 33,4 l/m²
Egubakoitza, 12	8 °C 7 °C 0,9 l/m²
Zapatua, 13	11 °C 5 °C 7,4 l/m²
Domeka, 14	12 °C 6 °C 2,5 l/m²
Astelehena, 15	8 °C 6 °C 0,3 l/m²
Martitzena, 16	10 °C 6 °C - l/m²

San Juan auzoan jasotako datuak



ASTEKO PROGRAMAZIOA

- ZAPATUA**
10:00 Asteko gainbegiratu: Juan Zelaia enpresaburua, Xabi Payá bertsolaria, Blanca Martinez, arrasateko maigo taldeko kidea...
- 16:00 Danbaka: Izas.
- DOMEKA**
10:00 Asteko gainbegiratu.
- 16:00 Danbaka: Isarevolution.
- ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**
09:00-11:00 IGO AUTOBUSERA!
Albistegia.
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landu).
Elkarrizketak.
Zozketak, etab...
- 11:05 Musika
- 12:05 Arrasate Irratiko albistegi laburra.
- 12:20 Zorion agurren tartea.
- 12:30 Izarren ordua: abesti ezagunak
- 13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
- 14:00 IGO AUTOBUSERA! (errep.)
- 17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra.

BALEINKESTA/ Espaiñako Erregie etorriko da datorren hillien Mondraguera, MCCk inbittaute



BLANCA LARRAURI
Langillie



ALAITZ KATARAIN
Langillie



JULIAN ALLERBE
Erretiraue



VIRGINIA URKIOLA
Langillie



NEKANE AGIRREBEÑA
Langillie



AGUSTIN ANSO
Langillie

Uste dot Garaia proiektuko helengo harrise jartera-edo datorrela, eta proiektu hori importanterik da herrixendatzen. Egixe esatiarren, baiñe, ez jat inporta zein datorren: Erregie, lehendakarixe...

Ez dakit Erregiek zertarako etorri biher dauen hona, baiñe neuri ez jat inporta. Ez dot uste bera egotie biherrezkue danik, baiñe inbittau dauenak jakingo dau hori.


Neuk txarto ikusten dot, geuk ez daukou-eta Erregiekin zerikusirik. Akaso, enpresindako ona izengo da, hor ez naz sartzen, baiñe erabaki politiko moduen ez jat gustetan.

Arrarue egitten jat Erregie Mondraguera etortie, baiñe ez jat ez ondo eta ez txarto pentsetan. Horren gainien gauza gutxi dauket esateko. Neu ez naz juengo Erregie ikustera. (Barre)

Egixe da Fagorren kontra propaganda txarra egon izen dala, eta akaso aurpegixe garbiketako inbittau daue. Baiñe neuri ez jat ondo pentsetan, ez dot uste erabaki ona danik.

Ez neuen uste Erregie hona etorriko zanik. Ez jat askorik gustetan erabaki hori, baiñe ez neuskio inportantzia haundirik emungo. Neu, behintzet, ez naz ikustera juengo. (Barre)

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK SEINALE GAIXOA Irakurle batek kontatu digu Iturbide egoitzaren atzealdean seinale bat zizko eginda aurkitu duela. Seinalearen egoera ikusita, irakurle horrek bere buruari galdetu dio ea seinalea hondatzeko makinaren batek zapaldu duen. Haren esanetan, zaila da gura barik hala hondatzea. Horregatik, apurtu duenari eskatzen dio erabilera publikorako diren gauzak zaintzea.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN / 7 KULTURA / 12 ZAHARRAK / 14

Guraso bakarrak

Zailtasunak dituzten guraso bakarrei aholkua emango die *Bidetxur* programa pilotuak.

Kerobia, gazte txokoekin

Euskadi Gazteko iazko irabazle Kerobia taldeak kontzertua egingo du gazte txokoan urteurrenean.

90 urtetik gorakoak

Abaroa elkarteak omenaldia egin zien 90 urtetik gorako bazkideei. 60 lagun batu ziren.

ASTEKODATUA

61.000

AUTO IBILTZEN DIRA EGUNERO ARRASATEN

Udalak mugikortasun plan iraunkorraren barruan egindako ikerketaren emaitzak kaleratu ditu. Horien artean, nabarmena da %70 autoan bakarrik ibiltzen direla.

BESTEKEKESANA

“ Eusebi auzotarra nuen Bartzelonan. Gracia auzoan ikusten nuen Frank Sinatraren kantuak abesten, marrazkiak egiten eta neska suediarrekin ligatzen. Gero jakin nuen laurogei urterekin modeloen agentzia baten lan egiten zuela eta hainbat film, iragarki eta bideo klip eginak zituela. Beraren gaineko filmaren protagonista izatea eskaini nion eta baiezkoa eman zidan. (...) Istorioa oso erakargarria iruditu zitzaidan: bizitza osoan kontularia izan den lagun batek bere buruaz beste egitea erabakiko du. Hori egin aurretik bizi izatea aukeratuko du. 80 urteko buhame bat irudikatu gura nuen, bere kasa ikasi duena eta modari jaramonik egiten ez diona. Horregatik, hilezkorra da”

IBAN DEL CAMPO
‘DEVORAME’/04-11-19

HERRITARRENBERBAK/ Antton Mendizabal



Arafat hil da

Palestina mundu-mapan ipini zuen gizona, Yasser Arafat, hil egin da. Jakina, hiru erlijioen iturburu den lurralde horren gatazkaren dimentsio sinboliko-ideologikoa erraldoia bihurtu da. Jakina, dozenaka estatu arabiarrek eta kontinente islamiar oso batek emandako laguntza ideologiko, logistikoko eta finantzeroko bitxia izan da. Baina Palestinako herria eta bereziki talde abertzale eta iraultzaileak izan dira orain arteko lorpenak egin dituztenak.

Euskal Herriko ikuspuntutik ekidinezina da konparazioa egitea. Arafatek gidatutako autonomia bere herriaren askatasunerako aurrerapausoa izan da.

Aldiz, hemen lortutako autonomia gure herria zatitzeko eta erresistentzia ahultzeko soilik baliagarria izan da. Hamas bezalako talde iraultzaileak egin dute hain segurantzia soziala, polizia-lanak,

unibertsitatea eta abar. Hemen, aldiz, Espainiako Estatuaren menpe, abertzaleak eta iraultzaileak alboratzeko eta zatitzeko egin da guztia.

Biolentziari buruzko azterketetan ere ezberdintasunak nabariak dira. Han, nazio eskubideen urraketa da biolentzia eta erresistentziaren iturburu. Hemen erresistentzia soilik da biolentziaren iturburu.

Han, palestinarren eskubide nazionalaren onarpena da politika normalizatzeko lehen baldintza.

Hemen, ezkerreko abertzaleei eskatutako erresistentziaren kondena.

Baina, han eta hemen inposatutako egiturak krisian daude eta bestelako gizarteei buruzko eztabaida politikoa zabalik dago. Anoetako ekimena galanta, zabala eta estrategikoa izan da. Kapaz izango gara guztion artean benetako bakearen aldeko, orain 25 urte ez bezala, urrats komuna emateko?

“Euskal Herrian lortutako autonomia gure herria zatitzeko eta erresistentzia ahultzeko soilik baliagarria izan da”

Arrasate

Otalora Lizentziaduna 31
 20500 ARRASATE
 Tel.: 943 71 25 11
 Faxa: 943 71 23 89
 Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Xabier Urzelai
Jon Berezibar

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Natali Martínez
Imanol Elortza
Amaia Mundiñano

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Berezibar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Marta Leturia

LEGE-GORDAILUA
55-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzua

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jauriaritzako Kultura saila



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Aramaioko Udala

ASTEABIHITZETAN

Tratu txarren kontrako bilkura, atzo

Atzo egin zuten Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna, eta egitasmo horrekin bat egiteko eta genero indarkeria salatzeko kale agerraldia egin zuten atzo ilunkeran Herriko Plazan. Horren berri emateko, Udalak bandoa kaleratu zuen herritarrei kale bilkuran esku hartzeko dei eginez.

Atzokoa ez da, baina, gai horren gainean herrian egin den ekitaldi bakarra, orain dela gutxi aurkeztu dute eta arazo horri aurre egiteko herri plataforma. Atzokoa izan zen talde moduan egin duten lehen agerraldia.

Polonian eta Txekian ikasle trukaketak

MUK Poloniako eta Txekiako unibertsitateekin ikasle trukaketak egingo ditu. Hala, MCCk bere lantegiak Europara zabaltzeaz gain, irakaskuntza ere zabaltu gura du.

Inbertsioak atzerrian dituzten enpresendako arazo handiena da atzerrian eraikitako lantegiak kudeatzeko langile kualifikatuak bilatzea. Horri aurre egiteko, MCCk lantegiak dituen lurraldeetako unibertsitateekin ikasle trukaketa egingo du. Eta, aurreragoko helburua da Txinan beste horrenbeste egitea, MCCk Shangain lantegia dauka eta.

Aldarrikapenak ikasleen egunean

Joan den astean egin zuten Ikasleen Nazioarteko Eguna, eta Ikasle Abertzaleak taldeak esku artean dituen aldarrikapenak kaleratu zituen. Arrasaten kale agerraldia egin zuten, Seber Altuben hasita.

Eguaztenekoa, baina, ez zen protestarako eguna bakarrik, jaia ere egin zuten eta Villabonan. GOITBrekin berbetan izan zen MUko ikasle Pello Otxandiano. Hala, Pellok gogorarazi gura izan zuen egun horretan jaia egiteaz gain ikasleek dituzten beharrak ere aldarrikatu zituztela.



Lore Gazteak taldeak emanaldia egin zuen

Joan den domekan Lore Gazteak dantza taldeak emanaldia egin zuen Amaia Udal Antzokian, eta hirurehun lagun inguru izan ziren emanaldia ikusten. Ikurrin dantzarekin hasi zuten emanaldia, eta ondoren, Bizkaiko, Nafarroako eta Gipuzkoako dantzekin jarraitu zuten. Laurogei lagun inguru ibili ziren emanaldian lanean.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

Abendu berezia

Oraindik ez dakigu neguan elurra egingo duen edo ez, ezta hotz handia egingo duen edo ez. Horren orde, badirudi Arrasate pil-pilean egongo dela datozen asteetan eta hilabeteen.

Ez dut nire burua igarletzat, baina hainbat kontu potolo dauzkagu abenduan zain. Batetik, Espainiako errege Juan Carlosek Garaia-

ko lehenengo harriko ekitaldira eta Fagor Garagartza bisitatzera etorriko dela ziurtatu du. MCCk egin dio gonbidapena, eta herritar gutxi gelditu dira epel berri bitxi horrekin.

Bestetik, herritar asko zur eta lur geratu dira Udaltax zulatzeko eta barrutik harria ateratzeko proiektua dela eta. Askok ez dute sinistu, inozentada dela uste

zuten, eta beste askok egungo modernismo itsuaren beste egitasmo bat moduan hartu dute. Ikusi behar herritarrek erabakitzeo aukera duten eta horren gainean zer dioten.

Hori guztia irensteaz gain, dagoeneko hasi behar gara Santamasak prestatzen. Ea aurten herriko kultur elkarteetan eta Udalaren arteko tira-birak konpontzen diren. Hori ere ez da erraza izango, baina denborak esango digu!

ASTEKOIRUDIA



IKER BARANDIARAN

BIZITZA ITXAROPENA HANDITU DENAREN BI EREDU GURE ARTEAN

Astean, urtero moduan, Abaroa elkarteak bazkide zaharrenei omenaldia egin die. Orain dela urte batzuk 80 urtetik gorakoak omentzen zituzten, baina aurten, 90 urtetik gorakoak aukeratu dituzte. Ezagun da bizitza itxaropena handitu dela, eta hala gertatu da Arrasaten baita ere. Argazkian agertzen

diren bi lagunak Abaroako bazkide emakumezko eta gizonezko zaharrenak dira, eta duten adina eta sasoi ez da txantxetako. Rafaela Etxaurrek 2005eko apirilean 100 urte beteko ditu, eta Alejandro Martinek 95 urte bete ditu abuztuan. Hala ere, Arrasaten egon badaude zaharragoak. /I.B.



**Pando
Errotuloak**

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak

Ibilgailuak

Stand-ak

Itsasgarriak

Biniloa

Seinaleak

Lonak

Erliebendun hizkiak



Txitxinpe

**Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak**

Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67-76

BELEN MAIZTEGI


Biteri etorbidea 13
Arrasate
Tel.: 943 08 15 44

*Domu Santu egunerako
lore-sortak, zentroak,
eta abar.*

Enkarguak hartzen dira

Tele-ordainketa

LURAK



ARRASATEKO BASERRIKO PRODUKTUEN AZOKA, BIHAR

Herriko hamabi baserriko produktuak izango dira bihar salgai Seber Altuben. Azoka hori orain dela lau urte egin zuten lehenengoz, eta bihar egingo dute berriro ere. 2000. urtean Arrasateko Udalak egin zuen ikerketa bat, eta emaitzek argi adierazten zuten sektore horren gainbehera. Horri aurre egiteko asmoarekin egin zuten orduan baserriarren azoka, eta aurten herriko auzo alkateekin berba egin eta gero, azoka hori berriro ere egitea erabaki dute. Horrenbestez, jakin, herriko baserrietako produktu ederrak eskura izango dituzuela bihar Seber Altuben. 09:00etan hasiko da azoka, eta 13:30ak arte egongo dira postuak irekita. Aukera paregabea gure sabelak herriko produktuekin asetzeko.



REALAREN ETA ATHLETICEN ARTEKO DERBIA APOTZAGAKO ESTADIO OLINPIARREAN

Argazkian azaltzen direnak dira, goian, ezkerretik hasita: Antxon Guerrero, Kasas Gurpegi, Espartza Urzaiz, M.Basurko Orbaiz, Oskar L. Rekarte, Gari Gabilondo, eta Danel Alonso. Eta, behean, ezkerretik hasita: Aitor Ezkerro, Ricky Arteta, J. Basurko Tiko, Zelaitxo Aranburu eta Pablo De Paula. Anoetako estadioan Realak irabazi zuen

(3-2), eta Apotzagako estadioan ere beste horrenbeste egin zuten (9-7). Bi derbietan Athleticekoak aurreratu ziren markagailuan (0-2), baina Realak emaitzari buelta emateko gauza izan zen. Anoetan Nihat izan zen protagonistetako bat, bi gol egin zituen-eta. Apotzagako fin ibili zena, berriz, Ricky Arteta. Lorenaren mutilak sei gol egin zituen.

ARROSTAITZ DANTZA TALDEKOAK KANTABRIAN

Azaroaren 12tik 14ra arte Arrostitz dantza taldekoak Kantabrian izan ziren. Ez pentsa, baina, dantza egitera joan zirenik. Behingoagatik, deskantsua hartu eta asteburua elkarrekin pasatzeko asmoarekin joan ziren Islara. Horrenbestez, Kantabriako bizilagunek ezin izan zuten arrasatearren dantzekin gozatu. Zapatuan jolasak egin zituzten, eta parrillada galanta egin zuten bazkaltzeko. Domekan Cavarcenoko parkean izan ziren, bat baino gehiago biharamun aurpegiarekin. Ala?



INGURUMENA/ Kanpanzarko Harrobia enpresa Udalatxetik harria ateratzeko aukerak aztertzen dabil

Etorkizunean Udalatx barrutik ustia daitekeen ikusteko probak egiten dabilta

JON BEREZIBAR

Kanpanzarko harrobia ustiatzen duen enpresa etorkizunean kareharria mendi barrutik ateratzeko aukerak aztertzen dabil. Oraingoz, mendi barruan 60 metroko galeria bat zulatu dute proiektuaren bideragarritasuna aztertzeko asmoarekin.

Etorkizunean Udalatx barrutik ustiatzeko azterketak egiten ari dira Kanpanzarko harrobian. Dagoeneko 60 metroko zuloa egin dute mendian barrena lehen ikerketak egiteko. Proiektua betetzen bada, 1.000 metro baino gehiago hondeatuko dituzte galeria egiteko.

Oraingoz hasierako azterketa lanak bakarrik egin dituzte, baina proiektuak, segurtasunari eta bideragarritasunari dagokienez, berme guztiak beharko ditu. Azterketa fase horretarako 2'4 milioi euroko inbertsioa egin du Kanpanzarko harrobiko enpresak. Horren ostean, gizartearen oniritzia ere bilatuko dute, harrobiko zuzendari Juan Luis Etxebarriaren esanetan. Izan ere, proiektua "berritzailea" da bere hitzetan, "Espainiako Estatu osoan ez dagoelako lur azpiko harrobirik; bai, ordea, eta aspaldidantik, Finlandia eta Ameriketako Estatu Batuetan".

Kanpanzarko Harrobiak etorkizuneko erronkei erantzuteko aurkeztu du egitasmoa. "Industria hornitzeko, harrobiak ahalik eta gertuen egon behar du, garraioak asko garestitzen du-eta materialaren prezioa". Gainera, bertako industriara materiala edo, zehatzago, arido edo agregakina errepidetik ekartzeak, "kostuak igotzeaz gain, ekologian eta gizartean ere eragiten du". Aurreikuspenen arabera, hazkunde ekono-

mikoarekin batera igotzen da agregakinaren kontsumoa eta etorkizuneko eskaerari begira daude harrobikoak. Egungo kanpoko ustiaketen alternatiba litzateke lur azpikoa, "begi-inpaktua ez da eta hain handia", enpresako zuzendariak azaldu zuenez.

Meatze berriak, parekotasun bat egitearren, pisutan banatutako lur azpiko aparkaleku baten antza izango du. Horretarako, barrualde osoa zulatu beharrean, haitzaren zati batzuk zutabe modura gordeko dira. Beraz, behin hondeaketak amaituta, ez dute eusteko zutaberik eraikiko. Horrek, harrobikoen esanetan, segurtasuna ematen dio zulaketari. Udalatx, gainera, kareharritzakoa da, oso material gogorra, izan ere. Neurriari dagokionez, 20 metro altueran eta zabaleran beste hainbeste izango dute hustuko dituzten ganbarek; sei pisuko altuera-edo. Meategiak barrura egiten duen heinean, zutabek zabalagoak izango dira eta ganberak txikiagoak; gehienez, beraz, 12 metroko zabalera izango dute ganbarek eta 32koa zutabeek. Hala ere, benetako neurriak ikerketa eta proba fasea amaitu ostean jakingo dira.

IKERKETA FASEAN

Harrobiko arduradunek hala adierazita, zulatu den lehen galeria ikerketak egiteko egin da. Hainbat zabalera eta sakoneratan neurketak egin dira dagoeneko. Jasotako datuekin simulazio informatikoak egin dituzte, tentsioak probatu eta balizko deformazioak ikusi aldera.

Ikerketek beharrezko segurtasuna bermatzen badute, hiru pisu egin ahal izango dira. Hala eta guztiz ere, oso epe luzera ikusten dute harrobiko arduradunek galeriak eraikitzeke egitasmoa, ustiapena, gutxienez, hamar bat



60 metro luze den lehen galeria honetan hasi dira probak egiten.

Pisutan banatutako aparkaleku baten antzera zulatuko dute, 20x20 metroko ganbarekin

urte barru hasiko dela aurreikusi dute-eta.

Aipatutako begi-inpaktuaz gain, meategia erabat aprobe-txagarria da ustiaketa bukatu eta gero. Hala erakusten dute Fin-

Oraingoz probetarako, galeria bakarra zulatu dute, bideragarria den ikusteko

landiako eta AEBetako espe-rientziek. Han, biltegi, industria-gune edo merkataria etxe gisara berrerabili dituzte hustutako harrobiak. Erabilpen horiek, baina, oso epe luzerakoak dira.

Begi-inpaktua txikitzeaz gain, kutsadura murriztuko dutela dio enpresak

Oraingoz lur azpiko harrobia bideragarria den ikertzen hasi dira, eta probak egiteko, aipatutako 60 metroko galeria zulatu dute. Hasierako ikerketa fasea egiterakoan zehaztuko dira asmoak.

Egitamu Orokorren aldaketei alegazioak egiteko epea amaitzear

J.B.

Abenduaren 10ean amaituko da Udal Egitamu Orokorren berriki egindako aldaketei alegazioak egiteko epea. Hainbat aldaketa egon dira, baina garrantzitsuenak etxebizitza berrien gainekoak izango dira.

Dokumentazio guztia eskuragarri dago Udaletxean, gura duenak ikusi ahal izateko, eta horretan joandako urriaren 25ean onartutako aldaketak jasotzen dira,

horietako batzuk funtsezkoak hiri antolamendu berriari dagokionez, eta etxebizitza kopuruari lotuta gehienak. Aldaketak 17 esparrutan egin dira, baina horietatik hirutan izan dira garrantzitsuenak: Akisoalden, Bizkaia etorbidean eta Azeri izeneko esparruan. Hasteko, Akisoalden (Garagartzako errugbi zelaiaren ostean) etxebizitza berriak egiteko asmoa jasotzen da Egitamu Orokorrean. Asmo horrekin aurrera segituko dute, baina etxebizitza kopurua aldatu egin dute aurten. Horrela, eraikiko dituz-

ten 96 etxebizitzetatik, 38 libreak izango dira eta 58 babes ofizialekoak. Aldaketekin jarraituz, Bizkaia etorbidean aparkalekuen eraikina egingo dute eta, horretaz gain, goiko pasealekuarekin lotzeko igogailu publikoa ere egingo dute. Bukatzeko, Azeri izenarekin mugatutako esparruan etxebizitzak egingo dituzte. Polmetasa enpresaren instalazioak dauden tokian etxebizitza gunea egingo dute, guztira 220 berri; horietatik 154 libre eta 66 babes ofizialekoak. Beste aldaketen berri Udaletxean emango dute.

LABUR

Arrasateko baserritarren produktuekin azoka egingo dute bihar Seber Altuben

Udaleko Garapen Ekonomikorako Zerbitzuak baserriko produktuen azoka antolatu du biharko Seber Altube plazan, 09:00etatik 13:30era arte.

Baserriko produktuen azoka 2000. urtean egin zuten estreinakoz. Urte hartan Arrasateko nekazaritza arloaren gaineko diagnosia egin zuten. Azterketa hark garbi utzi zuen gainbeheran zegoen arloa zela nekazaritza. Horrela, sektore hau sustatzeko helburuarekin 2000. urteko udazkenean bailarako nekazarien produktuen lehen azoka antolatu zuen Udalak.

Aurten sustapen ekimen hori berreskuratu gura dute, Arrasateko baserritarren oniritziarekin. Horrela, euren emango zaien protagonismoa eta herriko produktuak soilik eskainiko dituzte. Guztira 12 baserrik hartuko dute parte Jakion enpresarekin batera. Herriko baserritarren lana ezagutzeko aukera ere izango da. Asmoa, gainera, ez da aurten egitekoa bakarrik. Antza, datozen urteetan antolatzen jarraitu gura du Udalak.

Zailtasunak dituzten guraso bakarrei aholkua ematen die 'Bidetxur'-ek

ION BEREZIBAR

Bidetxur guraso bakarren behar eta arazoei erantzuten ikasteko programa pilotua da. Hezitzaile talde baten laguntzarekin, berezkoak dituzten erronkei aurre egiten erakutsiko diete gurasoei.

Guraso bakarrek dituzten arazo eta beharrei erantzuteko laguntza programa abiarazi zuen joan den irailean Udalak. **Bidetxur** dauka izena programak eta bertan hamar emakumek hartzen dute parte, eskura dituzten baliabideak autogestionatzen ikasten.

Talde dinamikaren bitartez guraso bakarren bilgunea egitea da programaren helburua, hezitzaileen aholkuarekin. Jesus Otaño da hezitzaileetako bat, Nura aholkularitza taldekoa, eta hark honako hau planteatzen du: "Guraso bakarreko familiek, gehienetan ama buru dela, arazo gehiago dituzte aurrera egiteko, baina horrek ez du esan gura gabezia gehiago dituztenik". Izan ere, horretan datza programa, "baliabideak ezagutu eta horiek kudeatzen ikastea", dio Udaleko Gizarte laguntzaile Virginia Ariolek.

Lana eta familia uztartzeko irizpide eta aholkuak eskaini gura dituzte **Bidetxur**-en. Arazo eta ezaugarri antzerakoak zeuzkaten emakumeak talde baten batzeko aukera ikusi zuten Udaleko Gizarte Zerbitzuetan, eta programa abiarazteko Eusko Jaurlaritzara jo zuten arduradunek joandako irailean. Planteamenduaren egokitasuna ikusi eta finantzatzeko oniritzia eman zuen



Udaleko Gizarte Zerbitzuek eta hainbat hezitzailek koordinatzen dute **Bidetxur**.

Eskuragarri dauden baliabideak ezagutu eta horiek kudeatzen erakustea da programaren nahia

Administrazioak. Momentuz taldea sortu eta dinamizatzen ari dira, hezitzaileen laguntzarekin, baina helburua partaideak euren kabuz moldatzea da; autogestioa,

"Guraso bakarrek zailtasunak izan arren, ez du esan gura gabeziak dituztenik"

alegia. Eskuragarri dauden baliabideak ezagutaraztea da nahia. Egitasmoa otsailean bukatuko da; orduan egingo dute balantzea eta balorazioa.

Hirurogei mila autotik gora ibiltzen da egunero Arrasateko kaleetan

I.B.

Datu adierazkorrak jaso ditu Udalak agindutako mugikortasun iraunkorraren gaineko inkestak. Herrian zirkulazio handia egon ohi da egunero eta joerak gorantz jarraituko du datozen urteetan.

Inkestak eta datu bilketa egin ostean herritarren iritziak jasoko ditu Udalak Arrasateko mugikortasun plan iraunkorraren barruan. Dagoeneko datu gehienak batu dituzte: zirkulazio eta oinezkoen kontaktak, aparkalekua, kaleen noranzkoak, garraio publikoa eta beste hainbeste. Intra enpresak egin du lan hori. Datuak batu ostean, bigarren fasera joko du Udalak, hau da, herritarren iritziak jasotzera. Bai Arrasaten eta baita bailara osoan ere asko mugitzen gara lanera edota ikastera joateko.

Hala adierazten dute datuek. Arrasaten 12.267 auto eta kamioi daude, gehienak turismoak, 10.052 guztira. Joera, gainera, haziz doa, urtean %2'4ko igoerarekin. Kopuru hori autoaren erabilpenaren datuek baieztatzen dute. Izan ere, bidaien %56 gure autoan egiten ditugu eta askotan bakarrik; garraio publikoari dagokionez, %6k bakarrik erabiltzen dute.

Baina herritarrek sortutako zirkulazioaz gain, kanpoko auto ugari ere etorri ohi da gurera: 7.600 egunean, hain zuzen ere.

Arrasaten 12.267 auto daude eta bidaiak gehienak gure autoan egiten ditugu

Arrasatetik kanpora, berriz, kopuru horren erdia irteten da.

HAMAIKA MILA AUTO EGUNEAN

Horren ondorioz, herriko kale batzuk saturatuta egoten dira zenbait ordutan. Aipagarrienak: Uribarri etorbidea, Alfontso VIII eta Gipuzkoa, Araba eta Nafarroa etorbideak. Kale hauetan egunero bederatzi eta hamaika mila auto bitartean ibiltzen dira.

Beste datu batzuk ere jaso dituzte inkestetan. Hala nola, autoen batez besteko abiadura 50 kilometro ordukoa da. Istripuen berri ere jakin dugu datuen bitartez. Iaz gertatutako 65 istripuetan 16 lagun zauritu ziren. Horietatik 17 oinezkoak ziren eta bi txirrindulariak. Gainera, oinezkoek aparkaleku gehiago egitea, espaloiak zabaltzea eta horiek behar bezala zaintzea eskatzen dute hobekuntzarik egitekotan.



Arrasateko euskalgintza



LARRAITZ TROJAOLA/EUSKALGINTZAKO KIDEA

"Bihur ditzagun urteko 365 egunak euskararen egun"

ARRASATEKO EUSKALGINTZA

Euskararen Eguna ospatuko dugu euskaldun guztiok datoren egubakoitzean, abenduaren 3an. Arrasateko Euskalgintzak dei egiten die herritarrei egun horretan eta gainerako 364 egunetan ere, euskaraz bizi gaitzen.

Datorren egubakoitzean, abenduaren 3an, Nafarroako eta Euskararen —*lingua navarrorum*— eguna ospatuko da. Kasualitatea ote? Ziuraski Nafarroako hizkuntza bakarra gaztelania dela Argentinan harro aldarrikatu duen Sanzi, min emango dio temati banatu guran dabilen errealitate bateraezinarekin (euskara eta Nafarroa) topo egiteak, baina hori hurrengorako utziko dugu.

Makina bat ekitaldi eta ospakizun antolatu dira Euskararen Eguna dela eta Euskal Herrian nonahi. Hitz politikak, diskurtsoak, adierazpenak... ere ez dira falta izango. Batzuk, egunaren *beretzitasunak* ukituta, agian euskara gehiago edo euskaraz hitz egitera animatuko dira, euren euskaldun kontzientzia lasaituz.

Eta gainontzeko 364 egunak? Euskararen normalizazioa ez da hitz politetatik edo diskurtso liluragarrietatik etorriko, lege miraritsu batek bakarrik ez ditu Arrasate eta Euskal Herria eus-

kaldunduko (nahiz eta euskara babestuko eta sustatuko duten legeak beharrezkoak izan). Euskarak denon ahaleginak eta denon konpromisoak behar ditu egunero. Denok daukagu zer egiteko: dakienak, bere egunero-kotasunean esparru guztietan erabili (etxean, lagun artean, lanean...); instituzioek eta erakundeek euskaldunon hizkuntza eskubideak errespetatu eta euskara babestu eta sustatu, horretarako baliabide egokiak jarritz; ez dakienak ikasi edota bere seme-alabak euskarazko eredu-tara bidali; denon artean beste lurralde batzuetatik datozen etorkinengana hurbildu eta euskarara erakarri, gure hizkuntza eskubideak exijitu...

Gure aurrekoek, ahoz aho, mendez mendez, euskara guregana helarazten jakin dute. Gure ardura da, orain, kateari eustea, hartu dugun ondare hori gure ondorengoengana hel dadin.

Bihur ditzagun urteko 365 egunak euskararen egun!



Badakitzu kirol etxien euskeraz eitteko eskubide daukatzule?

Zure eskubide hau ez dala beteten?

EZ IXILDU!!!
ARRASATEKO EUSKALGINTZA
ALDARRIKATU ETA SALATU

www.behatokia.org edo deitu

HIZKUNTZA ESKUBIDEEN
BEHATOKIA

EUSKARAREN TELEFONOAN 902 194 332



AITOR LIZARRALDE

Bigarren zatia hasi eta berehala UDAk gol aukera garbia izan zuen, baina arrasatearrak aurreratu ziren (1-0).

FUTBOLA

“Espero dut Pasaian taldeak derbian baino itxura hobea erakustea”

Josu Zubia ez zen batere gustura geratu taldeak egin zuen lehenengo zatiarekin

XABIER URTZELAI

Mondrak Pasaiaren zelaian jokatu du bihar, 17:00etan. Eta norgehiagoka horren ganean eta joan den asteko derbiaren ganean egin dugu berba taldeko entrenatzaile Josu Zubiarekin. Haserre amaitu zuen partidua.

Mondrak joan den astean galdutako hiru puntu eskuratzeko aukera paregabea, eta orduan galdutakoa errekuperatzeko asmoarekin joango dira Arrasatekoak Pasaiara. Irabazteko aukera ona izan zuten zapatuan, baina egia da UDAk ez zuela merezi esku hutsik joatea. Lehenengo

zatian oso makal ibili ziren arrasatearrak: “Jokalariek loak hartuta zelairatu ziren lehenengo zatian, eta horrela ezin da derbi bat hasi. Jokoari dagokionez, berehala egiten dugu atzera, eta erdialdean lekua galtzen dugu: horregatik egin ziren aretxabalek erdialdearen jabe. Horrez gain, egia da erasoan ez gabiltzala batere ondo”.

Hori da Arrasateko entrenatzailearen ustez Pasaiaren hobetu beharko dutena: lekua ondo hartu eta erasoan min egin; eta baita lehiarako gogo handiagoekin zelairatu ere: “Derbiaren bigarren zatian jokalariek gogotsu zelairatu ziren, eta jokalariek bat gutxiagorekin geratuta ere tal-

deak ez zuen behera egin. Baina lehenengo zatian kasta handiagorekin jokatu behar genuen, hori sumatu nuen faltan”.

PASAI, KONTRARIO ZUZENA

Mondra hamahirugarren postuan dago, eta hamalaugarrena da Pasai. Bi taldeak daude 15 punturekin: “Taldea guztiak gain-gainean gaude, eta gure artean ez dago tarte handirik. Pasaiaren irabaztea ez da batere erraza izango. Azkeneko bi partiduetan zazpi gol jaso dituzte, eta etxeko publikoak horrelakorik ez errepikatze eskatuko die. Motibatuta zelairatuko dira, irabazteko gogoarekin, eta guk beste horrenbeste egin behar dugu”.

Zaldibiaraino joan eta ezin jokatu

X.U.

Aitzol Lazkanok gaur 20:00etan jokatu du Tolosan Gipuzkoako Txapelketako partidua. Irabazteko asmoarekin joango da, baina jokatzearrekin ere konformatzen da. Joan den astean hori ere ez zioten utzi egiten.

Arrasateko pilotariari ederra gertatu zitzaion Zaldibian: “Zaldibiarako bidean zirkulazio handia zegoen, eta eguraldi txarra egiten zuen. Banekien berandu nindoala, eta partidua hasi baino hamar minutu lehenago iritsi nintzen.

Epaileak esan zidan lasai bertetzeko eta lagun arteko partidua jokatzeko. Nik esan nion hara ez



AITOR LIZARRALDE

nintzela lagun arteko jokatzera joan, eta zortzietarako kantxan izango nintzela. Aldagelatik irteera nindoanean, epaileak bere erlojua erakutsi eta bi minutu berandu nentzela esanez partidua galdutzat eman zidan. Kontrentzitzen ahalegindu nintzen, baina kasurik ere ez. Kontrarioak arrazoia eman zidan, baina horrela ere ez. Federaziokoei deitzeko pilotalekutik irten eta orduan hasi ziren elizako kanpaiak jotzen. Izan ere, etxera joan gura zuen epaileak”.

Azkenean Gipuzkoako txapeladun izandako Gurrutxagaren kontra lagun arteko partidua jokatu zuen Arrasatekoak, eta inork jakin gura badu, Lazkanok irabazi zuen partidua.

ZALDIBARARETOFUTBOLA

EMAITZAK

Billy & The Cowboys - Ekipo Aldeano ...	8-5
Manhattan - Lasagabaster	5-8
AC Surcos - Saukelu Scream	1-2

PARTIDUAK

AZAROAK 27, ZAPATUA.	EPAILEAK
11:00: HLB 108 - Lasagabaster.	You Know!
12:00: You Know! - Saukelu Scre.	HLB 108
13:00: Irati Taberna - AC Surcos.	Saukelu.
14:00: Torpedo M. - Tomahawk	Irati Tab.
15:00: Goma2 - Fuxion.	Torpedo Musako.
16:00: Abokajarro - Dribling.	Goma2
17:00: Betraye - La Kuadrilla.	Abokajarro
AZAROAK 28, DOMEKA.	EPAILEAK
12:00: Manhattan - Ekipo Alde.	AT Celaya
13:00: AT Celaya - Iriztu.	Manhattan Pip.

SAILKAPENA

MULTZO BAKARRA	P.	J.
1. AS Surcos	8	4
2. HLB 108	8	4
3. You Know!	6	4
4. Goma2	6	3
5. Irati Taberna	6	4
6. Saukelu Scream	6	3
7. Lasagabaster	5	4
8. Betraye	4	3
9. At Celaya	4	4
10. Iriztu	4	3
11. Ekipo Aldeano	3	4
12. Dribling	3	4
13. Torpedo Musakola	3	4
14. La Kuadrilla	2	4
15. Billy & The Cowboys	2	4
16. Abokajarro	2	4
17. Tomahawk	0	4
18. Fuxion	0	4
19. Manhattan Pippol	0	4

KOPAN, EMOZIO HANDIKO HIRU JARDUNALDI

EKIPO ALDEANO, LASAGABASTER ETA AC SURCOS KOPATIK KANPO

Joan den astean hiru jardunaldi baino ez zituzten jokatu, baina emozio handiko partidua izan ziren, indarrak pare-parean egon ziren-eta. Lehenengo partiduan, Billy & The Cowboys eta Ekipo Aldeanok 5-5 egin zuten, eta luzapenean cowboy-ek hiru gol sartuta egin zuten kanporaketan aurrera. Manhattan eta Lasagabaster taldeen arteko lehia hiru goleko aldeagatik irabazi zuen Manhattanek.

Hirugarren partiduan, AC Surcos eta Saukelu Scream taldeen artekoan, tentsio handia izan zen, baina norgehiagoka polita jokatu zuten bi taldeek; AC Surcosek penalti bikoitzen bidez gol aukera mordoan izan zituen, baina ez zuten asmatu. Azkenean, gol bateko aldeagatik nagusitu ziren Zigorrolakoak (1-2). Hori bai, antolatzailerik esan gura diete datozen partiduetan kontu handiagorekin eta lasaiago jokatzeko. Bestela, gogorregi jokatzeari zigortuko egingo dituzte-eta.

KIROLAGENDA

JOKATZEKOAK

FUTBOLA

Pasaia - Mondra

Preferentea. Zapatuan. 17:00. Errenterian.

Mondra - Dunboa Eguzki

Ohorezko gazt. Domekan. 11:00. Atxabalpen.

Allerru - Arrasate

Gazteak. Zapatuan. 12:00. Lezon.

Arrasate - Hernani

Ohor. Kadeteak. Zapatuan. 15:30. Atxabalpe.

Arrasate - Eibartarrak

Infantilak. Zapatuan. 10:30. Atxabalpen.

Agurain - Mondra

Emakumeak. Zapatuan. 15:45. Agurainen.

SASKIBALOIA

Mugarri Alkesa - Padura

Lehen Maila. Domekan. 12:00. Arrigorriagan.

Mugarri Alkesa - Azpeitia

Kadeteak. Zapatuan. 10:00. Musakolan.

Mugarri Alkesa - Iraurgi

Juniorrak. Zapatuan. 12:00. Musakolan.

ERRUGBIA

Arrasate - Hernani (Gipuzkoako Txap.)

Seniorrak. Zapatuan. 16:00. Garagartzan.

Ordizia - Arrasate

Gazteak. Zapatuan. 16:30. Ordizian.

Bilbo EHU - Arrasate

Kadeteak. Zapatuan. 12:00. Bilbon.

ESKUBALOIA

AGR Arrasate - Bidasoa

Lehen Territ. Zapatuan. 16:00. Iturripen.

Gatz Museoa Jakion - Urola

Gazteak. Zapatuan. 17:30. Iturripen.

Elgoibar - Arrasate

Bigarren territ. Domekan. 10:45. Elgoibarren.

Zarautz - Arrasate

Neskak. Domekan. 10:00. Zarautzen.

Loiola - Arrasate

Infantilak. Domekan. 12:00. Bidebietan.

PILOTA (GIPUZKOAKO TXAPELKETA)

Tolosa - Arrasate

Seniorrak. Gaur. 21:00. Tolosan.

EMAITZAK

FUTBOLA

Preferentea. Mondra - Uda	1-1
Gazteak. Arrasate - Amaikak Bat	1-2
Ohorezko gazt. Anaitasuna - Mondra	1-3
Ohorezko kadet. Lagun Onak - Arrasate	2-1
Emakumeak. Mondra - Ilinbxa	6-1

SASKIBALOIA

Seniorrak. Mugarri Alkesa - Kalagorri	71-69
Gazt. Cafes Aitona - Mugarri Alkesa	31-106
Kadeteak. Hernani - Mugarri Alkesa	37-66

ESKUBALOIA

Andoni Arando: "Liderrari irabazi egin behar diogu, Iturripen behintzat bai"

AGR Arrasatek territorial mailako talde indartsuena den Bidasoaren bisita izango du bihar (16:00etan, Iturripen)

YABIER URTZELAI

AGR Arrasatek denboraldiko norgehiagoka garrantzitsuenetakoa jokatu du bihar arratsaldean Iturripen. Lehenengo postuan dagoen Bidasoak oraindik ez du norgehiagokarik galdu, baina bolada on horrek bihar amaitu behar du.

Eta Andoni Arandoren mutilak gertu daude horretarako: "Horrelako partidu baterako ez dago ezer esan beharrik. Taldeak badauki zer dagoen jokoan, eta Bidasoari Iturripen, behintzat, irabazi egin behar diogu".

AGR Arrasatek hiru kartutxo ditu erretzeko, eta Arrasateko entrenatzailearen esanetan, dagoeneko erre dute bat: "Txapelketa honetan aurrera egiteko ezin ditugu hiru norgehiagoka baino gehiago galdu, eta dagoeneko Urolaren kontra galdu dugu partidu bat. Bidasoaren kantxan irabaztea ere oso-oso gaitza izango da. Horrenbestez, beharrezkoa da bihar Iturripen irabaztea, beste-

la, ezin izango genuke eta hanka-sartze gehiago egin".

BIDASOA BESTEEN GAINETIK

Arrasateko entrenatzailearen esanetan, Bidaso txapelketako gainontzeko taldeen gainetik dago: "Orain arte partidu guztiak irabazi dituzte, eta nahiko erraz, esango nuke. Esan gura dudana da gutxienez bi goleko aldeagatik irabazi dutela, eta, talde gaztea bada ere, oso jokalaria onak dituztela. Noski, horrek ez du esan gura makaltasunik ez daukatenik: euren ardura nagusia ez da defendatzea, eraso egitea da, eta hori aprobetxatu behar dugu guk".

Epaileen gainean ere Andoni Arandok badu Federaziokoen dako enkargua: "Ea nor bidaltzen duten norgehiagoka epaitzera. Gainera, bat beharrea bi epaile etortzen badira askoz hobe, horrelako norgehiagokak gaitzak izaten dira eta bakarrik epaitzeko". Izan ere, ez ahaztu sailkapenean lehenengoa eta bigarrena izango direla bihar aurrez aurre.



Argazkian, Arrasateko eta Hondarribiako jokalariek bi dantzan.

ARRASATE PRESS

Mugarri Alkesa saskibaloi taldea ezin da Paduraren kantxan 'hoztu'

X.U.

Sei norgehiagoka jarraian galdu eta gero, joan den zapatuan Zurututzaren mutilek erakutsi zuten oraindik bizirik daudela. Kalagorri Iturripen irabazi eta gero, Arrasatekoek etxetik kanpo ere eskuak bete puntu ekarri gura dituzte.

Bigarren norgehiagoka jarraian irabaztea, baina, ez da erraza izango, eta taldeko jokalariek Ander Mallabi-k eman dizkigu arrazoiak: "Padura oso indartsua da etxean jokatzeko duenean. Euren kantxan jokatzera ohituta daude, eta kontrarioek zailtasunak izaten ditugu han. Daukaten teila-peagatik izango ez balitz, aire librean jokatzeko dutela esango nuke, han ez dago eta hormarik. Horrek esan gura du domeka eguerdian oraindik ere fresko egingo duela. Gainera, saskiak ez dira batera onak, baina eurak ohituta daude hor jokatzera".

KONTRARIOA, LAUGARREN POSTUAN
Kantxa xelebrea, tenperatura hotza eta kontrario gogorra, horiek Mugarri Alkesaren domekako kontrarioak: "Padura talde ona da, urte asko daramatzate



AITOR LIZARRALDE


Joan den astean bi puntuko aldeagatik irabazi zion Mugarri Alkesak Kalagorri (71-69).

elkarrekin jokatzeko, eta orokorrean ondo osatutako taldea da: defentsa nahiko ona, kanpoko jaurtiketetan ondo moldatzen dira eta baita joko antolaketan ere".

Alde horretatik, Mallabi-k argi dauka Arrasatekoen orain arteko bolada txarraren arrazoiak: "Lesioek min handia egin digute, eta horregatik eta lan konatuengatik taldekideok ezin izan

gara batera entrenatu. Guztiok batera entrenatzen garenean hobera egingo dugu, horren esperantza daukat. Ea bigarren itzulian taldeak itxura hobea ematen duen eta sailkapenean gora egiten dugun". Joan den asteko partiduaren gainean ere egin digu berba: "Zapatuko garaipena oso garrantzitsua izan da guretako, ea aprobetxatzen dugun".

FOTOKIROLA



Aritxulegitik Aranora, sei orduko ibilaldia

Besaideko lagunek Gipuzkoako Birako beste etapa bat antolatu dute domekarako. Oraingoan, baina, aurrekoetan baino ibilaldi luzeagoa egingo dute: Aritxulegitik Aranora (Aiako harrian), hain zuzen. Besaidekoek aurreikusten dute sei ordu inguruko ibilaldia izango dela, eta hara joateko autobusa 07:30ean izango bada ere, oraindik ez dute erabaki noiz itzuliko diren: "Hori han erabakiko dugu, ibilbidea amaitu eta gero", esan digu antolatzaile lanetan dabilen Imanol Expositok. /X.U.

ELKARRIZKETA

PILI, MARIAN ETA MARIJO/ZAHAR BERRIKO BERBA LAGUNAK

“Ikasitako gramatikarekin ez da nahikoa; berba egin behar dugu”

IKER BARANDIARAN

Zahar Berri elkarteak aspalditik dabil euskara ikasten dabiltzanei laguntzen. Euskaltegietatik kanpo, euskaldun zaharrek batera, aisialdia eta euskararen erabilera uztartzen dituzte. Pili, Marian eta Marijo astero elkartzen dira.

Noiz eta zelan hasi zinen berba lagun? Zelan bururatu zitzaizun?

Pili: Iaz hasi nintzen. Euskaratik praktikatzen gura nuen eta gehiago ulertu.

Marian: Orain dela urtebete Zahar Berrira jo nuen, euskaldun berriei euskaraz berba egiten lagundu gura nuelako.

Marijo: Lagunekin egotearekin bat, euskara hobetu gura nuen; aisialdi orduetan euskara ikasteko aprobetxatu.

Zenbatean behin elkartzen zarete, eta zer egiten duzue?

Pili: Astean behin taberna baten elkartzen gara eta noizean behin paseatu egiten dugu.

Marian: Astean elkarrekin ordubete edo ordu eta erdi egiten dugu, eta hainbat gaiez berba egiten dugu: kontu pertsonalak, gizartearen gainekoak...

Zelako esperientzia da berba laguna izatea? Esku hartzeak esfortzurik eskatzen du?

Marian: Oso esperientzia ona da. Nik oso gustura egiten dut. Euskara maite dut, eta, Zahar Berriren bitartez, zerbait egin dezaket hizkuntzaren alde. Gainera, oso garrantzitsua iruditzen zait euskaldun zaharren eta berrien arteko lotura.


Marijo: Nik badaukat aukera etxean euskaraz egiteko, baina oso lagungarria egin zait berba laguna izatea. Hala ere, ez dut oso gustuko euskaldun berriaren termino hori. Euskara geroago ikasi dut, baina nire burua euskalduntzat dut betidanik.

Pili: Eskolatik kanpo euskara egiteak asko latsatzen ninduen, baina bi lagun ireki hauekin elkartzeak asko lagundu dit. Askoz errazagoa egin zait, konfiantza eman didatelako.

Euskaltegiaren ikasitakoaz gain, hain beharrezkoa da eskolatik kanpo euskaraz egitea? Igaritzen da alde egiten ez dutenekin?

Marijo: Bai, nabaritzen dut euskara hobetu dudala. Euskaltegiaren ez dugu ia berba egiten, gramatika bakarrik ikasten dugu. Horregatik beharrezkoa da kanpoan berba egitea. Gramatikarekin bakarrik ez da nahikoa!

Pili: Askori kostatu egiten zaie kanpoan euskaraz berba egiteko pausoa ematea, baina merezi du. Are gehiago, kontuan har-



IKER BARANDIARAN

“Euskara maite dut, eta, Zahar Berriren bitartez, hizkuntzaren alde egin dezaket”

tu behar da ikasle askok ez dutela inguru euskaldunetik praktikatzen ahal izateko.

Marijo: Horrez gain, ohiturak ere pisu handia dute. Niri, adibidez, gaztelaraz berba egiten ohi-tuta dagoenak ez du erraz euskarara aldatuko. Hizkuntzaz aldatzea uste baino zailagoa da, batzuen iritziz artifiziala emango duelako.

Pili: Askok konturatu barik hizkuntzaz aldatzen dute, hitzen bat ulertu ez diogulako. Hori ere ez da lagungarria, baina zaila da, eta zoritxarrez sarri gertatzen da.

Berba taldeetan esku hartzen duzue?

Marian: Horretan ez gabilta oso fin. Hirurok hitzordua aste-

“Berba egiteko premia handia dugu, eta euskaldun zahar gehiago behar ditugu”


ro egiten dugu, baina oraindik asteburuetan ez gara Zahar Berriko gainontzekoekin elkartu. Hirurok ditugun konpromisoak eta eginbeharrek zeresana dute horretan. Ea halako baten animatzen garen! Egia esanda, horrelako gauzetarako eurak baino animatuagoa naiz.

Marijo: Bestalde, euskaltegitik taloak egitera-eta joan izan gara.

Zer esango zenioke jendea-ri Zahar Berrin esku hartzeko?

Pili: Oso esperientzia polita dela eta merezi duela. Batetik, hitz egiteko aukera aproposa da. Eta bestetik, jendea ezagutzen dugu.

Marijo: Hizkuntza bat ikasteko berba egitea oso garrantzitsua dela.



ARRASATE PRESS

Ramon Sampedroren gaineko filma eta ‘El espantatiburones’

I.B.

Asteburuan, Alejandro Amenabarrek zuzendutako *Mar adentro* film ezaguna emango dute. Ramon Sampedro tetraplegiko galiziarren istorioa kontatzen du. Umeen-dako filma ere emango dute.

Gaur, egubakoitza, bihar, etzi eta astelehenean, *Mar adentro* filma emango dute Amaia Udal Antzokian. Drama hori Alejandro Amenabarrek (*Tesis, Los otros...*) zuzendu du eta 110 minutu irauten du.

Filmean, Ramon Sampedro tetraplegikoaren istorioa kontatzen dute. Ramonek gaztetan istripua izan zuen eta horren ondorioz, 30 urte darama ohean. Horretaz nazkatuta, bere buruaz beste egin gura du, duintasunarekin. Bat-batean bi emakumek bere bizitzan esku hartuko dute: hil-

tzen lagundu gura dion Julia abokatuak eta bizi izatea merezi duela konbentzitu gura duen Rosak.

Uste baino mezu positiboa duen film horretako protagonistak honako hauek dira: Javier Bardem (*Antes que anochezca, Segunda piel...*), Belen Rueda (*Los Serrano* eta *Periodistas* telesailak, besteak beste) eta Lola Dueñas (*Todo me pasa a mí, Marta y alrededores...*).

Horrez gain, etzi, *El espantatiburones* animazioko filma emango dute gaztetxoendako. Bilbo Bergeronek zuzendu du eta 90 minutu irauten du. Oscar arrai-naren abenturak izango dira.

ABENDUAN EZ DUTE FILMIK EMANGO
Zarzuclaren eta Akordeoi Lehiketaren prestakuntza lanak direla eta, Udaleko Kultura Sailak aditzaera eman du abenduan ez dute la filmik emango Amaia Udal Antzokian.

Artisten margolanak salgai, Harremanen eskutik

I.B.

Harreman gobernuz kanpoko erakundeak Arrasateko eta inguruko artisten margolanen erakusketara ipiniko du abenduan. Datorren egubakoitzean, hilaren 3an, inauguratuko dute Monterronen.

Harreman gobernuz kanpoko erakundeak San Clemente proiektuaren aldeko ekimenak egiten ditu, urtero, abenduan. Aurten, joan den urtean bezalaxe, Arrasateko eta inguru-tako artisten dohaintzak jaso dituzte eta hainbat margolan erakusgai ipiniko dituzte Monterrongo erakusketara aretoan.

Lan guztiak salgai jarriko dituzte. Guztira, 50 lan batu dituzte, gehienak arrasatearrek eginak, baina baita ere Aramaiotik, Bergaratik eta Aretxabaletatik ekarritakoak.

Datorren egubakoitzean, hilaren 3an, zabalduko dute erakusketak. Inaugurazio ekitaldia 20:45ean izango da. Horren aurretik, Goikobaluk kontzertua egingo du San Frantzisko elizan, 20:00etan.

DOHAINZAK EGIN DAITEZKE

Harremaneko arduradunek aditzaera eman dute beste artista batzuek margolanak eman gura badituzte, oraindik badutela aukera.

Gobernuz kanpoko erakunde-ko lagunek gogoratu dute jasotako dirua San Clemente proiekturako dela. Hain zuzen ere, inguru hartan nekazaritzaren eta abeltzaintzaren garapena sustatzeko ekimena dute abian. Horrez gain, Harremanen laguntzarekin Kolonbiako inguru horretan elikagaiak hobeto banatzeko kooperatiba bat sortu dute, COPAC izena duena.

ZINEMA-MUNDUKO SUKURTSAL BAT

Film-giroko tratu bat
Protagonista bat: zu zeu. Zatoz.

LAGUN ARO FILMS



▷ 23A

24

▷ 24 A


25



▷ 25 A

26

Berrikuntza guztiak, ordutegi berri
eta zabala, eta zerbitzurik onena,
zu zeure eta zure familiakoen
lasaitasuna segurtatzeko pentsaturik.



24

▷ 24 A

25

▷ 25 A

26

Lagun Aro Arrasate
Otalora I
☎ 943 79 20 77

 **LAGUN ARO**
SEGUROS - ASEGURUAK
Beti zugan pentsatzen

ELKARRIZKETA

KEROBIA/MUSIKA TALDEA

“Talde bat ezagutu behar da egiten duen musikarengatik eta duen jarrerarengatik”

IKER BARANDIARAN

Bihar, zapatua, Kerobia, Lau eta SKT Sekuentzia taldeek kontzertua egingo dute gaztetxean. Jaialdia Txatxilipurdik antolatu du, kudeatzen dituen gazte txokoek hamar urteko ibilbidea egin dutelako.

Iaz Euskadi Gazteko maketa lehiaketako epaimahaiaren saria jaso zenuten. Zer dauka ona eta zer txarra hori irabazteak?

Ordura arte geneukan ibilbidea eta orain jarraitzen duguna, gure ikuspuntutik, bera da. Baina jendeak taldea zelan onartzen zuen guztiz aldatu zen. Orduan hasi zen gure musika irratian entzuten, izena pixka bat ezaguna egiten... Eta hori bultzada handia da.

Halako sariak gauza txarrak ere badituzte, baina gure taldean ez da hainbeste ikusi: jendeak gauza konkretu batekin lerroka zaitzake, eta hori askotan ez da ona. Talde bat ezagutu behar da bere musikarengatik eta jarrerarengatik.

Diskoa ondo prestatzeko lasai hartu zenuten. Zelakoa izan da esperientzia? Gustura gelditu zarete emaitzarekin?

Bai, Gor diskoetxeak guran interesa jarri zuen, eta horrekin batera Jota teknikariak —Kafe Antzokian ezagutu gintuen— asko lagundu digu. Lan gogorra izan zen, baina gustura egin genuen. San Ferminetatik abuztuaren 10era arte egunero entseatzeko ibili ginen, eta horren oste-



GOR DISKAK

“Diskoa grabatzeko askatasun osoa izan dugu, eta oso gustura gaude emaitzarekin”

“Oso kantu melodikoak egiten ditugu, eta pop kutsua hortik datorrigu”

“Euskal Herrian gero eta taldeen bariedade handiagoa dago. Hori gauza ona da, beharrezkoa”

an grabazio estudioan sartu ginen. Ordurako ideiak oso argi genituen, eta oso gustura grabatu dugu, hari laukotearekin, tronpetarekin, eta abar. Askatasun osoa izan dugu, eta gustura gaude emaitzarekin.

Pop-rocka gustuko duzuela nabaria da, baina estilo gehiago uztartzen dituzue...

Egia esanda, estiloak zehaztea ez dugu gustuko. Lau lagun gara taldean, eta denetatik entzuten dugu: Berri Txarrak, Sen, Leihotikan, Itoitz, Ingalaterrako eta AEBetako taldeak... Horrez gain, teklatu jotzaile German jazz jotzen ere ibiltzen da. Nahasketa horrek ematen dio aberastasuna taldeari. Oso kantu melodikoak egiten ditugu, eta pop kutsua hortik datorrigu. Teklatuaren ukitu bereziak ere laguntzen du.

Zuen antzeko talderik badago Euskal Herrian?

Ez dakit. Gero eta talde berri gehiago irteten dabilta. Orain dela gutxi arte, oso bariedade txikia zegoen, eta hori aldatzen dabil. Hori gauza ona da, beharrezkoa.

Diskoan hari laukotea eta tronpeta ere sartu dituzue. Zuzenekoetan erabiltzen dituzue?

Guretzat zuzenekoak eta grabaketak bi arlo guztiz desberdinak dira. Grabatzerakoan pentsatu genuen kantu batzuei hari laukotea eta bestelakoak zegoekiela. Bestalde, musikari horiek guztiek Iruñean egin genuen diskoaren aurkezpenean bakarrik esku hartu zuten. Oso zaila da kontzerturo hainbeste jende mugitzea, eta ez dugu errepikatu. Arrasatera ez ditugu ekarriko.

Arrasateko Musika Eskolak hiru kontzertu asteburuan

I.B.

Arrasateko Musika Eskolak hiru kontzertu egingo ditu gaur, egubakoitza, eta bihar. Bata, Arrasaten; beste bat, Oñatin; eta hirugarrena, Aretxabaletan. Besteak beste, arrasatearrek Debagoieneko Musika Eskolen kontzertuan esku hartuko dute.

Arrasateko Musika Eskola gero eta ekitaldi gehiago antolatzen dabil. Gaur, egubakoitza, bi kontzertu egingo dituzte. Batetik,

18:30ean, hainbat ikaslek kontzertua egingo dute Musika Eskolan. Bestetik, Arrasateko Musika Eskolako Orkestra Txikiak Debagoieneko Musika Eskolen Kontzertuan parte hartuko du. Oñatin egingo dute, Santa Ana aretoan. Honako musika eskolak joango dira: Arrasatekoa, Oñatikoa, Aretxabaletakoa, Eskoriatzakoa, Bergarakoa eta Soralezakoa, hain zuzen ere.

ALBERTO ETXEBERRIAREN OMENEZ

Bihar, zapatua, Arrasateko Musika Eskolako Bandak kalejira egin-

go du Aretxabaletan, Murruxiko Mendi Elkarteak Alberto Etxeberriari egingo dion omenaldian.

Etxeberriak Arrasateko Bandarekin harreman handia izan zuen. Besteak beste, instrumentuak garraiatzen lagundu zuen hainbat alditan. Arrazoi horrengatik, Bandak kalejira egitea erabaki zuen.

Bandak, besteak beste, hiru pieza hauek joko ditu: *Arrasateko Musika Eskolaren eresia* (Juan Artzamendi), *Kalerik kale* (Munarriz) eta *Murruxiko Mendi Elkartearen eresia* (J.R. Vitoria).



ARRASATEKO MUSIKA ESKOLA

Musika Eskolako Bandak Alberto Etxeberriaren omenaldian esku hartuko du.

Abaroa erretiratuen elkarteak 90 urtetik gorako 60 bazkide omendu zituen

IKER BARANDIARAN

Martitzenean, Abaroa erretiratuen elkarteak omenaldia egin zuten 90 urtetik gorako bazkideei, 40 emakumezko eta 20 gizonezko batu ziren eguerdian, eta euren aldeko hitzak entzun ondoren, opariak banatu zituzten. Gustura ikusi genituen edadetuak.

Azkeneko urteotan Abaroa erretiratuen elkarteak 80 urtetik gorako bazkideak omendu ohi ditu. Aurten, berriz, kontuan hartuta Arrasaten -beste leku askotan moduan- bizi itxaropena gero eta handiago dela, 90 urtetik gorako bazkideei egin diete gonbidapena. Harritzekoa dirudien arren, 60 lagunek jaso zuten gonbidapen-gutuna: 40 emakumezko eta 20 gizonezkoak. Ez da marka txarra, ez horixe! Are gehiago, kontuan hartuta, han batutakoak ez direla adin horretako arrasatear guztiak.

Gonbidatuetako batzuk ezin izan ziren omenaldira joan, eta euren ordezkariak joan ziren, han esandakoak entzute eta opariak jasotzera. Hala ere, Abaroa elkarteak berbaldiak, ikastaroak eta halako ekitaldiak egiteko daukan aretoa bete egin zuten.

ABAROA, UDALA ETA ELIZA ORDEZKATU
Azkeneko urteotan moduan, hainbat lagun ezagunek esku hartu zuten ekitaldian: Arrasateko alkate Inazio Lakuntzak, Udaleko Gizarte Saileko teknikari Iñigo Garitanok, herriko parroko Genaro Lekuonak, Abaroa elkartearen presidentea Juan Luis Lizarralde eta Abaroa elkartearen idazkari Jose Rivierek, hain zuzen ere.

Lizarralde egin zuen ekitaldiaren sarrera, eta, ohikoa duen moduan, zorionak eman zituzten edadetuak. Inazio Lakuntza alkaterearen esanetan, han batutakoak "herriarendako eredu eta erronka" dira, eta galdetu zuen ea non sinatu behar duen "halako adina hain ondo hartzeko".

Genaro Lekuona parrokoak hango lagunei honako hau agindu zien: "Badakigu garai txa-



IKER BARANDIARAN

Erretiratuek adi-adi entzun zituzten Udaleko, elizako eta Abaroako ordezkarien laudorioak.

rrak ere bizi izan dituzuela, baina zuek iraganean hartutako lekukoa guk hartuko dugu, mundua eta gizartea hobetzeko". Horrez gain, hau eskatu zien: "Bizi-pozik ez dagizuela falta, adin horretara heltzea dohaina delako". Ekitaldian esku hartu zuten aipatutako ordezkari guz-

tiek euskaraz eta gazteleraz berba egin zuten.

Lagun horiek berba egin ostean, Abaroako idazkari Jose Rivierek omendutakoen zerrenda guztia irakurri zuen, eta Abaroako batzarreko zenbait lagunek opariak banatu zituzten. Emakumezkoen bonboiak, kolo-

nia ura eta kremak. Eta gizonezkoen bonboiak, kolonia ura eta usain-kengarria.

Abaroako aitona-amonek pozik hartu zituzten opariak, eta euren aldeko hitzak. Bat baino gehiago hunkitu egin zen. Izan ere, euren aldeko egun alaia eta berezia izan zen.

Abaroako beteranoenak

Abaroa elkartearen bazkide zaharrena Rafaela Etxaurre Zeziaga da. Datorren urteko apirilean 100 urte beteko ditu. Haren senideek esan digutenez, burua oso ondo dauka, baina sasoi txarrak izan ditu eta triste samar dago. 96 eta 99 urte bitartean dituzten zazpi emakume daude elkarte berean. Ekitaldian izan ziren gehienak.

Horiek guztiak baino gazteagoa da Alejandro Martin Lazaro. 95 urte bete

zituen abuztuan. Pozik hartu zituen opariak eta eskerrak eman zituzten antolatzaleei.

Omendutakoen artean, Iturbide egoitzan bizi diren hainbat lagun zeuden. Horien artean, Carmen Lamarain, besteak beste.

Horiez gain, egunero Abaroan bat egiten duten aspaldiko lagunak ere izan ziren: David Artzamendi, Agustin Azkoaga eta Pedro Zumelaga, besteak beste.

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETAK

Lore

• Lurrindegia
• Kabina
• Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

BOTEPRONTUEN

Itziar Ugarte

ITZIAR UGARTE OPTIKA

XABIER URTZELAI

Azaruen 2xen zabaldu euen Itziarrek optikie, Arrasate pasealekuen. Bartzelonan eta Madrillen ikesi euen Optika, eta leku askotan ibilli da lanien: Azpeitian, Elgoibarren, Tenerifen, Bolivian... Bistan da ez dala gora begire egon. Lokal ikusgarrixe zabaldu daue.

Azkenien zabaldu dozue!

Bai, eta ordue zan gaiñera. Konstrukziñoko huelgie zala, agostue zala, obrako atzerapenak zielea... Emuten euen ez geuela dendie zabalduko, baiñe bai, zabaldu dou.

Politte geratu da; itsu batek be ikusiko leuke lokala.

Bai. Ahaleginddu gare zerbait diferentie egitten, kristal askokin eta ondo iluminaute. Lokala be haundixe da, eta horrek asko lagunketan dau.

Zelan leleno astietan?

Ondo. Jentie etorri da, eta hori da inportantiena.

Optikie izenda, bistie neurketako aparatuek dauketzue, baiñe hori ez da dana.

Ez, entzumena neurtzeko aparatue be badaukou-eta. Horrez gain, pulstue hartu, betaurrekuek saldu, jentiei ze komeni jakon akonsejau...

Argi daukou hagiñiek zela zainddu. Baiñe, bistie?

Bistie zainketako ordenadore aurrien lan egitten dauenak noxien behin deskantsau egin biher dau, telebisiñue ez da gertutik ikusi biher, posturak zainketie komeni da, argi askoko egunetan eta edurretan eguzkittako betaurrekuek ibilli biher die, eta rebisiñuek egin biher die. Hortxe pista batzuk.

Ze betaurreko markakin egitten dozue lan?

Edurretarako betaurrekuek daukou: Dragon, Dirty dog... Eta, bestelakuek daukou Gucci, Christian Dior, Armani...

Oin, gaiñera, edurretarako betaurrekuek barra-barra salduko dozue.

Hori gure dou! Bai, jentie etorten da edurretarako betaurrekuek eroatera.



“Edurretarara doien jentieri esan kontuz ibiltteko eguzkixekin, eta betaurrekuek ibiltteko”

Esan dustie Iñaki de Mujikak, Herri Irratixen, txarto dabitzen arbitruiek zugana bielketan dittuela.

Bai, denda barrixe zabalduite publikizadie egittie komeni da.

Lanien, zerek egitten dutzu begixetan min?

Jentiek lentillak, betaurrekuek eta holakuek zela zainketan dauen ikustie.

Zeure lanerako ezinbestekue dan gauza bat.

Lentiek.

Lana alde batera itxitte: ze falta jako Mondraguei? Eta ez dau balixo aparkalekuek esatie.

Ba hori esan biher dot! Izen be, Seber Altube inguruen eta Uarka-

“Min egitten dust ikustiek jentiek lentillak eta betaurrekuek zela zainketan dauen”

pen aparkaleku mordue kendu daue, eta inguruen bizi garenok aparkau ezinka ibiltten gare.

Eta ze dauko ona?

Neuri herrixe asko gustetan jat. Jentie, esango neuke.

Ze falta jatzu zeuri?

Gauza asko.

Eta ze dauketzu sobran?

Beste gauza asko.

Pelikula bat. Liburu bat.

Musika talde bat.

La cena de los idiotas / El resplandor / Morcheeba.

Tranpan ibilttekotan norbaittekin, zeñekin?

Zeuri esango dutzut hori!

Kapritxo bat.

Eskietan juetie.


NIREBIDAIAHURA/ Nerea Makazaga

Indiara eta Nepalera / 2003ko abuztuan eta irailean

Indiako iparraldean bidaiatu eta gero, Nereak eta Ikerrek Nepalerako bidea hartu zuten. Hala kontatu digu Nereak Nepalen bizi izandakoa: “Edozein momentutan amildegian behera egin behar zuen autobus zaharrear iritsi ginen Nepalgo lurretara. Autobus hark aspaldi egin zituen egin beharreko kilometroak, baina han zebilen oraindik ere. Bidaia luzea izan zen, eta Katmanduko airea arnastu genuen preso batek askatasuna arnasten duen moduan. Dagoeneko ez genituen saltzaileak gainean. Izerdi tantak lehortzen, paisaiaren harmonia, eta lekuaren handitasuna; hori sentitu genuen”. Katmandutik Pokharara joan ziren: “Aurrera egiten genuen neurrian, Dhaulagiri jainkosen inguruan sortutako mitoek indarra hartzen zuten. Brahma kastako gizon batekin elkartu ginen, eta hark azaldu zigun maoisten eta Gobernuaren arteko gatazka, jendearen egoera, gizartearen egitura... Hala jakin genuen Nepalgo mendietako gazteek zein aukera zuten, zein zen euren patua: maoisten alde borrokatuz hil, maoisten kontra borrokatuz hil edo inoren kontra ez egitearren hil. Egoera horretan, haizea balitz bezala, beldurrak egunero egiten zuen bisita hango etxeetan”.

Nerearendako Nepal paradisua da: “Baina ez dago paradisu perfekturik, nahiz eta hango Gobernuaren trikimailuek eta bertako arazo politikoez ez dituzten gure orotzapenak ilundu”. Nepalen jende askorekin elkartu ziren, baita euskaldunekin ere: “Katmanduko supermerkatu batek irten, eta han ikusi genuen Alberto Iñurrategi lagun batzuekin. Hasieran kosta egin zitzaigun erreakzionatzea, baina eurengana joan eta hantxe izan ginen berbetan. Esan ziguten seguruenik arazoak izango genituela Nepaldik irteko, baina ez genuen horrelakorik izan”. Iker eta Nerea hegazkinean itzuli ziren Indiara, Delhira, eta handik zuzenean Parisera: “Horrelako bidaietan dena ez da ederra izaten, baina sekulako orotzapenak ditugu. Lehenengo egunetik azken egunera arte”.

XABIER URTZELAI



Nerea eta Iker Indian baino lasaiago ibilli ziren Nepalen.

“India atzean utzi eta gustura joan ginen Nepalera”

Herrialde berriak bisitatu dituzu?

Zure bidaia kontatzeko prest zaude?
Anima zaitetz, zure abenturak gustura irakurriko ditugu eta!

Deitu 943 71 25 11 telefonora.



EZETZASMATU



ARRASATE PRESS

Zein kaletan dago XVI. mendeko jauregi hau?
Gaur egun plaza ezagun bat dago aldamenean; zein?

Super BM

Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSek asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESSERA!

Cresta Rosa ardo gorri txinpartaduna
75 cl

2,99 € 497 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

FELIX AYASTUYrendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Felix!
Galderen erantzun zuzena:
Zalduspe kalean.

ARRASATEKOHISTORIA

Arrasateko baserri auzoetako bideak (IV)

'ARRASATEKO BASERRI...' / G. ARZELUS

Luzea da Arrasateko auzo-bideen zerrenda, eta, aurreko asteetan egin dugun moduan, izendapenarekin jarraituko dugu. Garagartzan hasiko dugu aste honetako ibilbidea.

Aquiso bide (Garagartza, 1899): Dokumentuetan Santa Maria Mayor de Akiso izenarekin ere azaltzen da. Bide hori, izen bera duen etxearen aurretik pasatzen da, alboan, auzoarekin lotzen duen zubia dagoelarik. Gesalibarrera joateko bide honetatik igarotzen ziren.

Aranbizkar bide (Musakola, 1779): Aranbizkar izenez, Musakola auzoan dauden mendi lur batzuk ezagutzen dira. 1779an Aranbizkarreraino zeraman bide bat aipatzen den arren, ez du esaten nondik irteten zen. gaur egun, mendi hauek pinuz eta baso pistaz josita daude.

Aranguren alde (Musakola, 1475, 1779, 1899): Esan beharra dago, Aranguren baserriko maiztergo zen Martin de Aranguren (1655) eraiki zuela Monterroneko jauregia, eta haren leinukoa zen Manuel Maria de Aranguren, Gipuzkoako Diputatu Nagusia 1841-42 urteetan, Erreinuko Sena-



Garagartza auzoan zegoen Gesalibarrera zihoan Aquiso auzobidea.

ARTXIBOA

torea eta Monterroneko kontea izan zela. Gainera, 1890ean baserritik gertu teilak eta adreiluak egiten zituen lantegi bat eraiki zen (1928 urtera arte iraun zuen).

Datu bitxi horiek adierazten digutenez, Aranguren baserria nahiko indartsua izan zen, beraz

Aranguren baserria oso indartsua izan zen; beraz, bere bideak oso erabiliak izan ziren

pentza dezakegu baserri inguruko bideak nahiko erabiliak izan zirela. Batez ere lantegiak (teileriak) martxan iraun zuen urteetan burdiak, teilak eta adreiluak zeramatzatela, izan ziren bide horien jabe. Horrexegatik deitzen zaie burdibideak, burdiek

erabiltzen zituztelako, alegia.

Hala ere, jadanik 1476ean aipatzen da Arangurenara zeraman bidea, ziurrenik herrigunearekin (erregebidea zela medio) lotuko zuena.

Arbe bide (Musakola, 1475, 1779, 1899): Arbe baserritik irteten den eta Altzibar eta Ibaiondotik pasatuaz Bergaratik zetorren erregebidearekin bat egiten zuen bidea Arbekoen kurtzebidea zen, handik jaisten baitzituzten hilerrira hildakoak. Hala ere, hirigunera jaisteko beste bide bat erabiltzen zuten, hots, Arbe eta Antoña-Etxebarri zuzenean lotzen dituen.

Bestalde, Saburdia baserriarekin eta Epeleko mendiekin lotzen zuen bide bat ere ba omen zuen (1779). Arbeko bideei buruz egiten den aipamenik zaharrena 1475ekoa da.

Arimazuri bide (Uribarri, 1812): Arimazuri edo Gorriko etxea 1966an Eskola Politeknikoa eraikitzeke bota zen. Baserritik gertu eta gorantz jarraituta *Murubidea* hartzen zen, Kurtzetaraino heltzen zelarik. Bide hori, bidekurutze batetik hasi eta baserriraino zihoan, bidekurutze horretan, Usaetxetik, Miraballetetik, Arrasatetik eta Gorrikotik zetozen bideak biltzen ziren.

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2004ko azaroaren 26a / 131. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolora Lizentziaduna 31. 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Konstituzioko zubiaren osterako egongo dira udaletxeko berritze lanak bukatuta

JON BEREZIBAR

Lanak ia bukatuta daude udaletxean, eta zubiaren ostean ikusi ahal izango dugu zelan geratu den. Bitartean, aldaketak direla-eta, datorren astean zenbait orduan udaletxea itxita egongo da. Datorren urteari begira, teilatua konponzeko asmoa du Udalak.

Oso gutxi falta da udaletxeko berriztapen lanak amaitzeko, eta, aurreikusita bezala, Gabonak baino lehen zabaldu ahal izango dute. Zehatzago, bi gela bakarrik falta dira egokitzeke: lanek iraun duten bitartean bulegoak egon diren pisua eta zinegotzien gela. Izan ere, bi hauek orain arte erabiltzen ibili da Udala eta datozen egunetan lanak bertan egin ahal izateko hustu egin beharko dituzte. Aldaketa hauek direla-eta hiru egunean zenbait orduz itxita egongo da udaletxea publikoarentzat. Konstituzioaren zubiko jaegunen ostean ikusi ahal izango dugu udaletxea zelan geratu den.

Bitartean, Udalak herritarrei erantzuteko ordutegian murrizketak iragarri ditu, lanak amaitu artean. Horrela, datorren



Lanak behar bezala amaitu ahal izateko datorren astean zenbait orduz itxita egongo da udaletxea.

eguzten eta egunean itxita egongo da udaletxea 12:00etan. Egubakoitzean, berriz, egun osoa egongo da itxita, eta premiazko eskaerak bakarrik erantzun dituzte.

Berriztapen lanak amaituta teilatua konponzea da Udalaren asmoa. Itoginak direla-eta konponketak egiteko premia larrian dago teilatua. Asmoa da datorren

urteko foru-plangintzan sartzea konponketa hau. Konponketa hori egiteko Aldundiaren oniritzia jaso du dagoeneko Aramaio-ko Udalak.

Eguaztenetik aurrera itxita egongo da udaletxea zenbait orduan, konponketengatik

Lanak amaituta, orain itoginengatik teilatua konponketa izango da hurrengo pausoa

Aurreikusita zegoen bezala, eta atzerapen barik, Gabonak baino lehen amaitu dira lan guztiak

Preso baten senideei diruz laguntzeagatik salatu dute Udala

J.B.

Bisita egiteko preso baten senideei dirulaguntzak emateagatik salatu dute Udala. Azkenaldian hiru salaketa politiko izan ditu Udalak eta hori ere Estatuko Administrazio orokorrak egin du. Alkateak dirulaguntzen zilegitasuna azpimarratu du.

Aste honetan jakin du Udalak Estatuko Administrazio Orokorrek euren kontrako beste salaketa bat daukela. Kasu honetan herriko preso baten familiari

bisitak egiteko dirulaguntza bat emateagatik izan da salaketa. Epaiaketa 2005eko martxoaren 15ean izango da. Alkateak garbi utzi nahi du "erabaki hori Udalabatzak aho batez onartu zuela". Udal osoaren erabakia izan zen beraz. Gainera, bere hitzetan "ez da laguntza hau ematen den lehen urtea eta sekula ez gaituzte salatu".

Mertxe Mondragon "harrituta" dago, azkenaldian hiru salaketa izan dituzte-eta Estatutik. Lehena presoak herriratzearen aldeko pankarta bat erosi eta udaletxeko balkoian zintzilika-

tzeagatik izan zen. Salaketa hau bertan behera geratu zen forma kontuengatik, baina horren ostean Berrria egunkariari dirulaguntzak emateagatik izan zuten epaiaketa orain dela gutxi. Oraindik ez dute epaiaren berri izan. Salaketa guztiak, gainera, Estatutik etorri dira.

Hala ere, Mertxe Mondragonek garbi utzi gura izan zuen "bai euskararen eta presoaren familien alde dirulaguntzak ematen jarraituko duela". Izandako hiru salaketa politikoaren inguruan "nor-bait zelatan dabilkiela ematen" duela adierazi zigun.

LABUR

Aramaioko neska-mutikoak ere Leintz Eskola Kirola egitasmoaren barruan

Leintz bailarako herriekin batera Aramaioko neska-mutikoek ere Leintz Eskola Kirola proiektuan hartuko dute parte. Egitasmo honetan 6 eta 14 urte bitarteko ume eta gaztetxoak izango dira partaide, kirol eskaintza zabalarekin.

"Kirolarekin batera osasuna, heziketa, garapen fisikoa eta psikosoziala uztartu gura dira". Horiek izan ziren Kepa Altube, batzordekidearen hitzak. Guztira Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Leintz Gatzaga eta Aramaioko ia mila neska-mutikok esku hartuko dute.

Miren Agur Meabe idazlea izango da bisitan Udal Liburutegian.

Ipuin kontalari bat egon da aste honetan liburutegian umeentzako. Atzo, eguna, etorri zen Joseba Ramirez bere ipuinekin, Aramaioko umeen gozamenarako. Abenduan ere izango da ipuinlerik gurean. Hilaren 14ean Miren Agur Meabe idazlea etorriko da liburutegira bisitan.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Erretintza (Arrasate)	943 79 71 99
Erretintza Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kirodegia	945 44 53 35
Zubiako Eskualdea	945 44 50 83
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
08:15	07:50	08:05
	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

OHARRA: izartxoan duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

ZINEMA ABENDUAN

Abenduan ekingo zaie atzera Udalak domeketan antolatutako zine emanaldiak. Orain arte emanaldiak ez dira lehengo erregulartasunarekin egin, baina abendutik aurrera domekero egongo da film bat, Udalak esan duenez. Aurki iragarriko dute zeintzuk izango diren emango diren filmak.

'KILL BILL VOL.2' BARIKUAN

Bariku honetan *Kill Bill* filmaren jarraipena emango dute kultura etxean; beti bezala 22:30ean izango da. Nagusiendako da film hori.

UDALETXEA ITXITA

Leku aldaketa dela-eta udaletxea ordu jakin batzuetan itxita egongo da datorren astean. Berriztatze lanak amaitzean daude, eta horregatik egongo da itxita.

Eguazten eta eguenean, abenduaren leian eta 2an, eguerdiko hamabietatik aurrera egongo da itxita udaletxea eta barikuan, 3an alegia, egun osoa egongo da itxita publikoarentzat. Premiazko kasuak bakarrik erantzun dituzte.

Txukuntze lanak egingo dituzte Arexola auzoan

Arexola auzoko kaleak eta eliza ingurua txukundu egingo dituzte. Hala erabaki zuen udalbatzak helburu horrekin deitutako ezohiko batzarrean.

Lehenengo ura sartu, saneamendua eta gasifikazio lanak egingo dituzte eta jarraian zolatzea egingo dute. Asmoa da kalea txukundu eta plaza bat eraikitzea eliza parean. Halaber, elizarako sarrera ere egokituko dute. Hori dela-eta, horra igotzeko eskailerak egingo dituzte eta plazara sartzeko

ko bideak txukundu. Plaza, izan ere, gaur egun harraskak dauden tokian egingo dute.

Udalak ahal duen eta arinen hasi gura ditu lanak eta horretarako ezohiko batzarra deitu zuen eguaztenerako. Izan ere, lanak urtea amaitu baino lehen esleitu gura dira, lehenbailehen eraikitzen hasi ahal izateko.

Lan hauek egiteko 260 bat milioiko aurrekontua izango du Udalak. Hala ere, zenbateko zehatza ez da oraindik erabaki.



Gaur egun harraskak dauden tokian egingo dute plaza berria.

Laster hasiko dira babes ofizialeko etxeak egiten

J.B.

Errekara ematen zuen hormak eragindako atzerapenaren ostean, dagoeneko amaitzean daude babes ofizialeko etxeen orubearren saneamendu lanak. Hormaren ordean, arrapala bat egingo dute errekan, Jaurlaritzaren onespenerekin. Saneamendua amaitzen denean hasiko dira eraikitzen.

Dagoeneko bukatzean daude Pedro Ignacio Barrutia kaleko babes ofizialeko etxeak eraikitzekeko urbanizazio lanak. Gutxi falta den arren, oraindik saneamendu lanak ez daude amaituta. Izan ere, erreka ondoko horma baten izandako arazoek atzeratu egin dituzte lanak. Eusko Jaurlaritzako Ur Departamentuak atzera bota zuen proiektua, errekarara ematen zuen horma batek ez zituelako beharrezko baldintzak betetzen. Orain arte arazo horri zer konponbide eman aztertzen ibili dira. Azkenean, joan den barikuko Gobernu Batzarrean onartu zuten konponbidea. Proiektu berriarekin harribeteta edo arrapala bat eraikiko

dute errekarako horma bat izan beharrean. Neurri horrekin aurrera jarraitu ahal izan dute lanek. Abuztua ezkerok dabil Amenabar enpresa lekuko saneamendu lanean, hau da, ura, argindarra eta gainontzekoak instalatzeko egokitzapenak egiten. Errekara ematen duen hormaren kontuak asko atzeratu ditu prestaketak.

ERAIKITZEN HASTEAREN

Orubea prestatu eta saneamendu lanak amaitzen direnean, bigarren faseari ekingo zaio, hau da, etxebizitzaren eraikuntza lanen esleipenari. Eusko Jaurlaritzak egingo du esleipena eta ostean Udalarari aurkeztuko dio proiektua. Irailaren 16an amaitu zen proiektuak aurkezteko epea.

Guztira 44 bat etxebizitza egingo dira Pedro Ignacio Barrutia kalean, guztiak babes ofizialekoak, Etxebide programaren barruan. Jaurlaritzak jasotako datuen arabera etxebizitza eskaria eraikiko diren etxebizitza kopuruaren bestekoa izango da. Gainera, Udalak adierazi digunez Ibargoienean ere babes ofizialeko etxeak egiteko asmoa dute.

BOTEPRONTOAN/ Alex Aginagalde · Zinemazalea

“Nire asmoa, hasiera baten, film klasikoak ematea izan zen, baina erantzun eskasa izan zuen ideiak”

Aramaioko gazte hori arduratzen da orain dela urte betetik hona barikuro kultur etxeko zine emanaldiak antolatzeaz. Zinta klasikoaren zalea da eta Aramaion antzinako horiek ikusteko aukera egotea da bere nahia. Hala ere, gustu guztietako filmak programatzen ditu eta dagoeneko prest dauka Gabonetako eskaintza.

Nola otu zitzaizun zinema emanaldiekin hastea?

Orain dela urtebete proposatu nion ideia Udalarari eta ni bakarrik hasi nintzen emanaldiak antolatzen. Nire hasierako asmoa izan zen gustatzen zaizkidan film klasikoak eskaintzea. Iazko Gabonetan ekin nion, baina emanaldi erregularrekin otsailean hasi nintzen. Oso harrera ona egin zion ideari jendeak.

Zinta klasikoak dituzu gustuko, baina bestelakoak ere eskaintzen dituzu, ezta?

Nire lehen asmoa klasikoak pantaila handian ikusi ahal izatea izan zen baina, antza, jendea ez zaizkio hainbeste gustatzen. Hasieran, erreklamo moduan Oscarretan saritutako filmak programatu nituen, baina horrek ere ez zuen arrakasta larregi izan. Azkene-



“Hilean behin-edo film klasikoak nahiz bereziak eskaintzen jarraitzeko asmoa daukat”

an komertzialetara jotzea izan da aukera eta jendea etortzen hasi da. Beraz, erantzuna ikusita...

Amore eman duzu, orduan?

Ez guztiz. Joan den hilean, adibidez, Chaplinen bat ikusteko aukera egon zen eta jendea etorri zen, baina argi daukat zer den gustatzen dena. Normalean eta bataz beste, 20 bat lagun etortzen dira eta aurreko hilean, adibidez, 34 lagun etorri ziren emanaldi batera.

Gabonetan programazio berezia izango dugu?

Berezia edo behintzat guztien gustukoa. Izan ere, Gabonetarako beste modu baten egin dut aukeraketa edo, hobeto esanda, jendeak aukeratu ahal izan du. Emanaldietara etortzen zen jendea galdetu nion ea zer ikusi gurako luketen. Gabonetako programazioa, beraz, eskae-

ren arabera izango da. Nire hasierako asmoa ere gazteendako filmak ematea izan zen.

Ikusteko aukerarik izan ez eta gustuko ditugun filmak pantaila handian ikustea gura nuen. Azkenean 33 urtetik gorako jendea etortzen da gehien.

Zerrendari begira, umeendako filmak izango dira nagusi?

Bai, eta gainera umeen kontu horrekin gauza bat azaldu gura nuke. Izan ere, ume asko etortzen da emanaldietara eta askotan ez dira adin txikiendako filmak izaten. Jakin ahal izan dudanez, guraso asko kexu dira horregatik. Nik garbi utzi gura dut umeak gurasoen ardurapean etortzen direla emanaldietara eta nik, bestela, ez diot inori sarrera galaraziko, ez da nire lana. Aurrez banatzen dudana triptikoan ematen da filmaren berri. Gurasoek, hortaz, jakinaren gainean egon beharko lukete nik ez daukat-eta zertan inori kontuak eskatu.

Eta hemendik aurrera, zeintzuk dira zure asmoak?

Emanaldi komertzialekin jarraituko dut, baina hilean behin-edo film klasikoak emateko asmoa daukat. Klasikoa ez bada, niri esanguratsua edo bereziki ona iruditu zaidan bateren bat izango da.

“Jendeak ideari egindako harrera oso ona izan da, film komertzialei dagokienez”

ERRETRATUZAHARRA

Sukaldean
moldatzen
ikasten, 1953

oso ezaguna izan da herrian Oduli Antsoategik sukalde kontuetan zeukan esku ona. Askok etxean jatordu garrantzitsuren bat zeukatenean sarri deitzen zioten Oduliri, sukaldean lagundu eta gonbidatuak tripa ederto beteta eta aho zabalik uzteko. Argazki hau bere etxean ematen zituen sukaldaritza eskoletako batena da. Han ikasten ziren sukalde kontuetan ikasi beharreko guztiak, herriko irakaslerik onenarekin, gainera.

Argazkian, zutik guztien erdian amantal zuriarekin agertzen zaigu Oduli, eta inguruko neska gazte guztiak ondo zekiten sukaldariaren abilezien berri. Arrasate eta Eskoriazakoak dira lagunak, eta gehienak ezkontzeaz zeuden. Izan ere, horretara joaten ziren garai hartan neska gazteak Oduliren etxera, Zarugalde kalean zegoen etxera: ezkondu aurretik sukaldean aritzen ikastera. Izan ere, antzina ezkondu baino lehen emaztegaiek lapiko artean konpontzen ikasi beharra zuten. Garaiak aldatu



badira ere, egungo iloba batek baino gehiagok eskertuko dizkio Oduliri orduan amamari erakutsiko platerak.

Bi hilabete irauten zuten bertan ematen ziren sukaldaritza ikastaroek. Egunero-egunero plater bat gertatzen zuten Odulirenean eta ondoren zozketatu egiten zuten etxera nork

eraman. Garai zailak ziren haien eta etxera eramaten zuenak ordaindu egin behar izaten zuen platera. Ikastaroa amaitzerako guztiak euren sukaldaritza liburua idazten zuten. Kontu handiz Oduliren gomendio eta truku-txoak apuntatzen zituzten eta baita ere errezeta bakoitzerako behar ziren


osagaien kopuruak. Partaideek behintzat behin baino gehiagotan bapote jateko aukera izan zuten.

Argazkia: Eguzkine Urizar
Informazioa: Mertxe Aranburu
Urtea: 1953

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Uarkapen lur
mugimenduak
izan ziren

1990ean, Uarkapeko etxebizitzak egiteko lanetan hasi zirenean, mendi-magala irristatu egin zen, eta Azatzako eta Altamirako etxeetan pitzadura azaldu ziren. Orduan hasi zen gatazka luzea. Altamirako errepidea denbora luzean egon zen itxita, eta nahiz eta Azatzako etxeak babesteko burdinazko indargarriak jarri zituzten, ez zen nahikoa izan.



≈ 1994 Lanok berriro ere hasi zituztenean pitzadura gehiago azaldu ziren. Lanok gelditu, eta urteak eman zituzten epaitegietan.



2004 1994ko otsailean hitzarmena egin zuten Udalak, Azatzako bizilagunek eta Uarkapen egin behar zituzten etxebizitzak jabeek.

ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko
hodiak
beirina eta kristalak
osagaiak

Olarte kalea, 47 behea Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

Monte
taberna

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

BITTORI
ERRETEGIA

Eguneko menua - Kartako menua
Especialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82



SAIO BEREZIA GOIENA TELEBISTAN

Eski denboraldia 04/05

Goitb
Goiena Telebista

Ikustekoa!

ESKI DENBORALDIA 04/05
Saio berezia

Azaroaren 29an, astelehena
21:30ean eta 23:00etan

Osasun Gida

AKUPUNTURA

- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Uarkape, 18 behe. ezk. 943 77 13 34

DERMATOLOGIA

- CONCEPCION TAMAYO Dk. Munar 10 620 12 48 43

ENTZUMEN ZENTRUA

- GAES Otolora lizentziaduna 18 943 71 27 93
- INSTITUTO OPTICO. BIOACUSTICA Erdiko kale 22 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar, 1-1 943 77 00 40

FISIOTERAPIA ETA GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA

- ANDONI ETA MARIA BASTERRETxea Errehabilitazio Zentrua Garibai Etorb. 6B 943 77 03 96
- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1. 943 77 14 72

KIROPRAKTIKA ZENTRUA

- ANDREA LARRAÑAGA Erdiko kalea, 22-3. eskuma 943 79 92 83

LOGOPEDIA

- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 943 79 48 77

MASAJEAK

- JOSE LUIS ABUIN (Kiromasajea, akupuntura, naturopatia) San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldagian ere bai) .. 943 77 01 33

ODONTOLOGIA

- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 19-1 Ezk 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA Zerkaosteta, 19 behe 943 79 71 90
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7- 1 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsalde) Alfonso X. Jakintsua, 5 943 79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde 16- 1.-Esk. 943 77 12 63

OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzezino, 6 943 79 25 98
- INSTITUTO OPTICO (Optika, Optometria eta kontaktologia) Erdiko kale 22 943 79 71 68
- MULTIOPTICAS LARRAÑAGA (Optika, Optometria eta kontaktologia) J. Carlos Guerra 1 943 79 29 95
- PORTALOI OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Erdiko kale 10. 943 79 65 56

ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPEDIA Kontzezino, 2 943 79 89 34

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea 943 79 44 22

OSTEOPATIA

- NEREA BENGUA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Azoka kalea, 4 659 58 66 89

PODOLOGIA

- ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA Erdiko kalea 54, behe eskuma 943 79 97 46

PSIKOLOGIA

- LANDER GARMENDIA Obenerreka 2, 7H 943 79 35 86
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 943 79 48 77
- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 943 79 88 16

UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56. 943 79 44 22